

2016an 5.082 lagun hil ziren Europarantz egindako itsas zeharkaldian

## 258 errefuxiatu eta migratzaile hil dira aurten Mediterraneoan

■ 11.169 errefuxiatu eta migratzaile Europara itsasoz iritsi dira 2017an.

■ Grezian, non 60.000 lagun baino gehiago ez aurrera ez atzera gelditu diren, errefuxiatu-esparruetako baldintzek zailak izaten jarraitzen dute eta premia humanitarioak oso handiak dira.

11.000 migratzaile eta errefuxiatu baino gehiago Europara itsasoz iritsi dira aurten. Eta 258 lagun Mediterraneoan hil egin dira edo desagertuta daude. 'Errefuxiatuen krisia' deitutakoaren handitasuna eta iraunkortasuna islatzen duten zifrak dira, eta krisiaren jatorria honako hau da: bizi duten gatazka-egoera edo pobrezia larriko egoeraren ondorioz bizitza hobea, edo soil-soilik bizitza bat izateko Europara iristen saiatzen diren ehunka mila pertsona.

Horregatik, Europako herrietako Gurutze Gorriak eta Ilargi Gorriak euren esku-hartzea indartu egin dute pertsona kaltebera horiei laguntzeko honako ekintza hauen bitartez: elikagaien eta elikagaiak ez diren artikuluen banaketa; oinarrizko osasun-laguntza; lehen laguntza, laguntza psikosoziala; ura, saneamendua eta higienaren sustapena; senitartekoen artean harremana berreskuratzea; eta abar.

Egoera bereziki zaila da Grezian. 60.000 errefuxiatu eta migratzaile baino gehiago ez aurrera ez atzera geldirik daude Grezian. Errefuxiatu-esparruetako baldintzek zailak izaten jarraitzen dute eta premia humanitarioak oso handiak dira. Bertan, Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Nazioarteko Federazioak **385.000 pertsona** baino gehiagori lagundu die krisia hasi zenetik.

Bestalde, Espainiako Gurutze Gorriak Grezian lanean jarraitzen du Skaramagas eta Ritsonako esparruetan, lehen mailako arreta-zainketak, lehen laguntza eta laguntza psikosoziala emanez. Horrez gain, bi esparruetan beste hainbat ekintzatan esku hartzen dugu: ODK (datuak biltzeko eta tratatzeko sistema), ur- eta saneamendu-azpiegituren garbiketa, gune komunen desinfekzioa, drainatzeen konponketa, higiene-artikuluak banatzea, eta abar. Operazioa hasi zenetik, Grezian **185** misio egin dira langileak hainbat aldiz txandakatuz. Guztira **115** emakume eta **70** gizon joan dira.

Gaur egun Atenasko hiri-ingurunean esku hartzeko proposamen bat diseinatzen ari gara, oinarrizko laguntza sanitarioa emateko. Ekintza horiek guztiak Nazioarteko Federazioarekin eta, bereziki, Greziako Gurutze Gorriarekin koordinatuta egiten ditugu.

Operaziorik handiena Grezian egiten bada ere, Erakunde Humanitarioak lan egiten eta Gurutze Gorriari eta Ilargi Gorriari laguntzen jarraitzen du migratzaile eta errefuxiatuei arreta eskainiz hainbat herritan, adibidez Serbia, Kroazia, Libano eta Sirian.

### Informazio gehiago:

[www.cruzroja.es/cre\\_web/principalci/ayuda-crisis-refugiados.html](http://www.cruzroja.es/cre_web/principalci/ayuda-crisis-refugiados.html)

Álvaro García Serrano  
Komunikazio Arduraduna

Arabako Gurutze Gorria  
Tlfn. 945 22 22 22 luzapena 8 | 678 40 14 43  
[comunicacionalava@cruzroja.es](mailto:comunicacionalava@cruzroja.es)

[www.cruzroja.es](http://www.cruzroja.es) | [www.cruzroja.tv](http://www.cruzroja.tv)  
[fb.com/cruzrojaalava](https://fb.com/cruzrojaalava) | [twitter.com/cruzrojaalava](https://twitter.com/cruzrojaalava) | [instagram.com/cruzrojaalava](https://instagram.com/cruzrojaalava)